



2016KO APIRILAKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora uninertsalean eman dira, gehitu 2 ordu ofiziala kalkulatzeko)

BEHATZEKO PROPOSAMENAK

Begi hutsez:

-Hilaren 2an, 06:00an, Perseoseko Algol izar aldakorraren distira minimoa. 3,3tik hurbil dago haren magnitudea. Hilaren 5an, 7an, 10an, 13an, 16an, 19an, 22ean, 25an, 28an eta 30an izango dira beste minimoak

-Hilaren 6an, 21:00an, Eta Aquilae izar aldakorraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 14an, 21an eta 28ean izango dira beste maximoak.

-Hilaren 3an 06:00an, Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 8an, 14an, 19an, 24an eta 30an izango dira beste maximoak.

Begi hutsez larri, baina prismatikoekin ongi ikus daiteke:

-Hilaren 10an, 20:00an inguru, ilargiak (estimatu bere errauskin argia) Hyadesetako kumulu irekitako izar batzuk estaliko ditu.

100mm-tik gorako teleskopioarekin:

-Hilaren 1an, 20:18tik 21:21ra, Io eta Europa sateliteen itzala ikus daiteke Jupiterren azalean proiektatuta Hilaren 8an, berriro ere, 22:55tik 23:16ra, Io eta Europaren itzalak ikusiko ditugu Jupiterren.

ILARGIA APIRILAN

02 librazio minimoa longitudean ($l=-7,7^\circ$).

05 17:21an, beheranzko nodotik pasatuko da.

06 08:00an, konjuntzio geozentrikoan Artizarrarekin, $0,7^\circ$ ra.

07 11:24an, Ilberria.

07 Perigeotik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 357.170 km (aurreko apogeoan baino 48.966 gutxiago). Ilargiaren gertutasunak marea biziak ekarriko ditu.

08 13:41an, konjuntzio geozentrikoan merkuriorekin, 5° ra.

10 06:09an, konjuntzio geozentrikoan Tauroko pleyadeekin, 9° ra.

10 22:22 konjuntzio geozentrikoan Aldebaranekin, $0,3^\circ$ ra.

12 librazioa maximoa latitudean ($b=6,8^\circ$).

14 librazio maximoa longitudean ($l=7,6^\circ$).

14 04:00an, Ilgora.

16 23:29an, konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, $2,4^\circ$ ra.

18 03:05an, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, $2,1^\circ$ ra.

18 18:04an, goranzko nodotik pasatuko da.

21 12:16an, konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, $4,9^\circ$ ra.

21 16:08an, Apogotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 406.342 km (aurreko perigeoan baino 49.172 km gehiago).

22 05:24an, Ilbetea. Aurtengo ilbeterik txikierna da ($\%12$ gutxiago), Apogeo eta ordu batzuk geroago ematen delako. 23an, ilargia mendebaldean ikusi ahal izango dugu, eguzkia ekialdetik atera ondoren.

25 05:46an, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, $4,9^\circ$ ra.

25 08:40an, konjuntzio geozentrikoan Eskorpioko Antares izarrarekin, $9,6^\circ$ ra.

25 19:47an, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, $3,3^\circ$ ra.

26 librazio minimoa latitudean ($l=-6,7$).

30 librazio minimoa longitudean ($l=-7,4^\circ$).

30 03:29an, Ilbehera.

PLANETAK APIRILAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

Merkurio (arratsalde amaieran ikusi ahal izango da hilaren 25 arte) orbita-abiadura 172.440 Km/h

Hilaren 1an eguzkia sartu eta 50 minutura ezkutatu da, mendebaldeko zeruhertzean dirdiratu.

Elongazio maximoa hilaren 18an izango da, orduan eguzkia sartu eta bi ordutara ezkutatu da. Igoera zuzena 01h eta 03h artean, deklinazioa 8° eta 20° bitarte. Piscisetik Ariesera pasako da. Magnitudea nabarmen murriztuko du, $-1,5$ tik $3,2$ era.



Artizarra (hilabete honetan ikustea zaila izango da) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Nendi garaietatik eta zeruhertz garbi batean bakarrik ikusi ahal izango da. Udara arte itxoin beharko dugu, orduan mendebaldeko zeruhertzean ikusi ahal izango du arratsalde amaieran. Igoera zuzena 23h eta 2h artean, deklinazioa -3° eta 10° bitarte. Hilabetea Piscisen hasiko du, Cetusetik pasa eta Piscisera bueltatzeko. Magnitudea $-3,9$ an mantenduko du.

Marte (gauaren bigarren erdialdean ikusi ahal izango da) orbita abiadura 86.760Km/h

Hilaren 1an, ekialdetik azalduko da gauerdia baino lehenago, eta gure meridianean aurkituko da egun sentia baino lehenago, Eskorpioko Antares gainean. 30an, eguzkia sartu eta bi ordutara azalduko da. 17an egonkor aurkituko da, bere eretrogradazio kiribila hasteko. 30an, lurretik oso gertu, 87 milloi km-ra aurkituko da (distantzia maximoa 378 milloi km dira, minimoa 56). Itxurazko diametroa $16''$ koa izango da, hau ez da 2005ko abendutik eman. Igoera zuzena 16h, deklinazioa 7° eta 8° bitarte. Hilabete guztia Ofiukon emango du. Magnitudea $-0,8$ tik $-1,5$ ra haundituko da.

Jupiter (gau osoan ikus daiteke) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Hilaren 1an eguzkia sartu baino bi ordu t' erdi lehenago aterako da, indar haundiarekin disdira eginez hego-ekialdeko zeruhertzetik 25° ra. Gure meridianetik pasako da 50° ko altueran, egunsentia iritsi baino lehen arte ikusiko dugu, Momentu egokia behatzeko. Bere eretrogradazio kiribila jarraitzen du ekliptikaren mendebalderuntz, maiatzaren 9 arte iraungo du honek. Igoera zuzena 11h, deklinazioa 7° eta 8° bitarte. Hilabete guztia Leon emango du. Magnitudea $-2,4$ tik $-2,3$ ra jetsiko du.

Saturno (gau amaieran ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Eguzkia baino sei ordu lehenago aterako da hilaren 1an, eta eguzkia baino 7 ordu lehenago 30an. Eretrogradazio kiribilan jarraitzen du (oposizioa ekainaren 3an izango da). Bere inklinazioa lurrarekiko 26° tik gertu dabil, ondorioz bere ipar poloa eta planetaren itzala eraztunen ipar-ekialdean ikusi ahal izango dira Igoera zuzena 17h, deklinazioa -21° . Hilabete guztia Ofiukon emango du. Magnitudea $0,3$ tik $0,2$ ra pasako da.

Hilaren 7an 12:03ean, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 15an 11:15an, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 23an. 10:04an, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Urano (hilabete honetan ez da ikusiko) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Hilaren 9an eguzkiarekin konjuntzioan aurkituko da, beraz ezin izango dugu ikusi denbora batean. Igoera zuzena 1h, deklinazioa 8° . Hilabete guztia Piscisen. Magnitudea $5,9$ an mantenduko da.

Neptuno (hilabete honetan ez da ikusiko) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Oraindik ezingo dugu europatik ikusi, ekliptikaren inklinazioa dela eta, honek ekialde hego-ekialdeko zeruhertz arrasean mantenduko du egunsentia baino lehen, Igoera zuzena 23h, deklinazioa -8° . Hilabete guztia Akuarion. Magnitudea 8 tik $7,9$ ra pasako da.

APIRILEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

-01 Asteartea. Eguerdian, 2.457.480. egun juliotarra hasiko da.

Egunak 12 ordu eta 46 minutuko iraupena du hilaren 1an, eta 14 ordu eta 07 minutukoa hilaren 31an. Ordu eta 21 minutuko diferentzi, 2,7 minutu eguneko.

-03 Lurra zehazki eguzkitik UA (unitate astronomikoa: 149.597.870.691 Km, edo 8,316746 argi minutu) batera aurkituko da.

-15 12:00an, denboraren ekuazioa nulua izango da.

-18 12:48an, eguzkia itxuraz Aries konstelazioan ($28,91^{\circ}$) sartuko da.

-19 Astrologiaren arabera, eguzkia Tauron sartzen da (30°). Zodiakoaren zeruko mugek eta izen bera daramaten zodiakoko konstelazioak ez dira berdinak.

-23 Pazko judutarra (5776 urteko Nisan hilabeteko 15)